

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udalak eskatuta, Laudioko udalerriko 433 zenbakidun erregistro-finkaren segidako traktuari berrekiteko administrazio-espeditentea (2020/95/S566 espeditentea)

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuko Udal Ondarearen Zerbitzuak, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 37. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten du jarraian transkribatzen den ziurtagiria Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatzeko asmoa duela, eta, horretarako, ALHAOn argitaratzen dela. Araban eta Laudioko Udaleko ediktu-oholean, 30 egunez.

ARANTZAZU LILI SALAZAR, LAUDIO HARAN NOBLEAREN UDALEKO IDAZKARI NAGUSIAK
ZIURTATUA

1º. Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuko Udal Ondareko Zerbitzu Unitatearen 2020/95/S566 espeditentean dauden datuen arabera (1985eko uztailaren 22ko, 1986ko apirilaren 29ko eta 1993ko apirilaren 26ko Osoko Bilkuren eta 1985eko abenduaren 6ko Gobernu Batzordearen erabakien ziurtagiriak), Laudioko Udala deskribatzen den jabari publikoko ondasunaren jabea da.

“Laudioko finka. Etxe isolatua, Areta auzoa, hogeita hamar zenbakia, hamasei metro, lau dezimetro karratu luze, hamabost metro eta bost zentimetro zabal eta zortzi metro altu dituen, bi solairu ditu, bata bederatzi gelakoa eta bestea bi areako azalera duen departamentu batekoa, berrogei zentiaera, berrehun eta berrogei metro karratukoa. Mugak: iparraldea eta mendebaldea, estatua, hegoaldea, zortasun-bidea, ekialdea, erreka eta zortasun-bidea. Berrehun eta berrogeita bat metro, berrogei dezimetro eta hogeitazentimetro koadro ditu. Lursailak: A) ehun eta laurogeita hamazazpi metro eta laurogeita hamazortzi dezimetro koadro. Mugak: iparraldea, etxea, hegoaldea, lursail bereziaz eta Ardau SArri saldua, ekialdea, Romarate anaiak, eta mendebaldea, Ardauko finka. B) Presaganez mila zazpiehun eta hogeita lau metro koadroko azalera izatea. Iparraldean, Aldaiko bidearekin egiten du muga; hegoaldean, burdinazko bidearekin; ekialdean, bide edo zortasunarekin; eta mendebaldean, Ignacio Barbararekin”

2º. Aipatutako ondasuna bat dator katastroko 5. poligonoko 196 katastro-lurzatia eta Amurrioko Jabetza Erregistroan 433 zenbakiarekin 480 liburukiko 54. folioan inskribatutako finkarekin (43. liburua) bat datozela.

3º. 433 zenbakiko finka Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, honako hauen izenean: María Asunción Escauriaga Zubiria, Emilia María Escauriaga Zubiria, María Josefa Escauriaga Zubiria, María Pilar Escauriaga Zubiria, Ana María Escauriaga Zubiria, Estanislao Escauriaga Zubiria, Fátima Escauriaga Zubiria, Regina Escauriaga Zubiria, Luis Escauriaga Zubiria, Alfonso Escauriaga Zubiria, Maria Dolores Escauriaga Zubiria eta Francisca Fernández Cordoba Moreno.

4º. Finka horren jabari osoa erregistroko titularrek Aretako Kultur Etxea izeneko elkarteari eskualdatu ziotela, eratzeko aldian, 1981eko apirilaren 25eko salerosketa-kontratu pribatuaren bidez.

5º. Aipatutako ondasuna Laudioko Udalak erosi ziola Aretako Kultur Etxea izeneko elkarteari, Gobernu Batzordeak 1985eko abenduaren 6an hartutako erabakiaren bidez; une horretatik aurrera, Udalak du ondasunaren jabetza.

6°. Espedientean Udaleko zerbitzu juridikoek traktuari berrekitearen aldeko txostena jasotzen dela.

7°. Udalak ez du onetsitako Ondasunen Inbentariarik, eta, ondorioz, ez dago jasota bertan sartutako ondasuna.

8°. Ondasuna jabari publikokoa dela, eta Kultura Garapenaren Arloko Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuari atxikitako Kultur Etxerako dela.

9°. Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 37.3 artikuluan ezarritakoaren arabera etendako segidako traktuari berrekiteko eta finka Amurrioko Jabetza Erregistroan Laudio Udalaren izenean inskribatzeko, ziurtagiri hau ematen da, 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legearen 206. artikuluan xedatutakoaren babesean.

Horren berri ematen da, finka horren gaineko eskubidea dutela egiaztatzen duten interesdunek alegazioak edo aurka egiteko aukera izan dezaten Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuko Udal Ondarearen Zerbitzuan (Herriko Plaza, Laudio), 30 eguneko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzan, dokumentu hau ematen dut, alkate udalburuaren oniritziarekin.

Laudio, 2020ko abenduaren 21a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE